

# 173. ALDIZKARIA - 2016KO IRAILAREN 7A

## 2. NAFARROAKO TOKI ADMINISTRAZIOA

### 2.2. XEDAPEN ETA IRAGARKIAK, HERRIEN ARABERA ANTOLATUAK

#### BERRIOBEITI

#### **MERKATARITZA EZ EGONKORRA ARAUTZEN DUEN UDAL ORDENANTZA BEHIN BETIKO ONESPENA**

Berriobeitiko Udalak, 2016ko ekainaren 7an egin osoko bilkuran, hasiera batean onetsi zuen Merkataritza ez egonkorra arautzen duen udal ordenantza (2016ko 122. Nafarroako Aldizkari Ofizialean argitaratu zen, ekainaren 24an).

Nafarroako Toki Administrazioari buruzko uztailaren 2ko 6/1990 Foru Legearen 325. artikuluan xedatuari jarraikiz, maiatzaren 31ko 15/2002 Foru Legeak aldatu baitzuen, eta jendaurrean egoteko epea iraganik inork alegaziorik aurkeztu gabe, ordenantza behin betiko onetsi eta osorik argitaratzeko agindu da, behar diren ondorioak izan ditzan.

Berriobeitin, 2016ko abuztuaren 29an.–Alkatea, Juan María Albizu Andueza.

#### **ORDENANTZA, MERKATARITZA EZ EGONKORRA ARAUTZEN DUENA**

##### I. kapitulua

Xedapen orokorrak

##### 1. artikulua. Xedea.

Ordenantza honen xedea da merkataritza ez egonkorra arautzea Berriobeitiko udal mugapean, Merkataritza ez egonkorra arautzen duen uztailaren 3ko 13/1989 Foru Legean aurreikusitakoa betez.

Merkataritza ez egonkorra da merkatariek ohiko saltoki egonkorretatik kanpo, instalazio desmuntagarrietan, aire zabalean, edo denda-ibilgailuetan egiten dutena.

##### 2. artikulua. Moduak.

Merkataritza ez egonkorra modu hauetakoa izaten ahal da:

- a) Merkatu txikietan, aldikotasuna eta tokiak aldezturik erabakita.
- b) Noizbehinkako merkataritza aldikotasunik gabea.
- c) Herriz herriko merkataritza denda-ibilgailuetan.

##### II. kapitulua

Udal baimena

##### 3. artikulua. Betebeharrak.

Oro har, merkataritza ez egonkorrean aritu ahal izateko Udalaren baimena behar da. Baimena eskatu nahi duten merkatariek honako baldintza hauek bete beharko dituzte:

- a) Alta emanda egotea Jarduera Ekonomikoen gaineko Zergan, dagozkien epigrafeetan.
- b) Gizarte Segurantzaren bidezko araubidean alta emanda egotea.
- c) Europar Batasuneko beste edozein estatutako nazionalitatea ez dutenendako egoitza baimena eta lanean beren kontura aritzekoa izatea, indarra duen araudian ezarritakoaren arabera.
- d) Erantzukizun zibileko aseguruia edukitzea, merkataritzako jarduera horren arriskuak estaltzeko.

e) Salgaiak gizakiaren kontsumorako elikagaiak baldin badira, elikagaiak manipulatu dituzten pertsonak dagokien ziurtagiria eduki beharko dute.

Produkturen baten araudiak haren salmenta debekatzen badu, ezin izanen da hura saltzeko baimenik eman. Halaber, debekaturik dago honako hauek saltzea: haragia, hegaztiak eta ehizaki freskoa, hotzetan nahiz izozturik, zezina, hestebeteak, urdaiazpikoa, arrautzak, arraina eta itsaski freskoak, hotzetan nahiz izozturik; esne ziurtatua, pasteurizatua eta esneki freskoak; pastelak eta opilak, beteak zein apainduak; elikadurako pasta freskoak, beteak eta erdikontserbak; eta haien ezaugarri bereziengatik eta agintari eskudunen ustez osasun arriskua duten produktu guztiak.

Dena dela, baimena eman ahal da aurreko leerroaldean aipatu produktuak saltzeko, baldin eta osasun agintari eskudunen ustez behar diren instalazioak badaude garraiatu eta hotzean edukitzeko.

4. artikulua. Eskaera.

Berribeiteko udal mugapean merkataritza ez egonkorrean, edozein modalitatetan, aritu nahi duten guztiak eskabidea aurkeztu beharko dute Udalaren Erregistroan. Eskabidearekin batera, erantzukizuneko aitorpena aurkeztu beharko dute, ordenantza honen artikuluan bildutako betebeharrak guztiak betetzen dituztela egiaztatzen duena.

5. artikulua. Esleitzeko irizpideak.

Baimen prozedurak prozesuaren hasierako, garapenerako eta amaierako gardentasun, inpartzialtasun eta publikitate egokiak bermatuko ditu. Pertsona edo elkarte bakoitzak salmentarako baimen bakarra eskuratu du.

Eskatzaileen kopurua Udalak esleitu beharreko postu kopuruarena baino handiagoa bada, Udalak ondoko irizpideak kontuan hartu ahal ditu postuak esleitzeko.

a) Instalazio egokiaren eskuragarritasuna, kalitatezko zerbitzua eman ahal izateko.

b) Lanbidean frogatutako esperientzia, merkataritzako jardueraren behar bezala egiten dela bermatzeko.

c) Kontuan hartzea politika sozialeko zenbait irizpide:

–Eskatzailearen zailtasunak lan merkatuan sartzeko.

–Zenbat pertsonak duten eskatzailearen mendekotasun ekonomikoa.

–Eskatzaileek zehapenik jaso ez izana ebazpen irimoan merkataritza ibiltaria arautzen duten arauak hausteagatik.

6. artikulua. Baimena ematea, berritzea eta errebozazioa.

Alkatetzaren ebazpen bidez emanen da baimena eta, ondoren, Udalaren iragarki oholean paratuko da, eskatzen diren baldintzak betetzen direla egiaztatzen ondotik.

Udalak identifikazio plaka emanen die bere udal mugapearen barnean merkataritza ez egonkorrean aritzeko baimentzen dituen pertsona fisikoei eta juridikoei. Dokumentu horrek baimenaren funtsezko datuak bilduko ditu, eta agerian eta bezeroen eskura egonen da. Aipatu agirian kontsumitzaileen erreklamazioak jasotzeko helbidea jarri behar da. Era berean, helbide hori bera azalduko da fakturan edo salmentaren frogagirian.

Udal baimenen titularrek karnet tamainako bi argazki ekarri beharko dituzte eta beharturik egonen dira ezarritako tributuak ordaintzera. Baimenak pertsonalak eta besterenezinak dira.

Hona baimenetan zer azaldu behar den: titularraren argazkia eta datu pertsonalak, saltokiaren kokagunea, eta salgai jartzen ahal diren gai eta produktuak. Lizentzia fiskalean eta udalaren baimenean agertzen diren produktuak salduko dira.

Urtero, baimen guztiak abenduaren 31n galduko dute indarra eta, beraz, urtero berritu behar dira. Berritu ahal izateko, azaroaren 1etik 15a bitartean eskatu behar da, eta dokumentazio guztia ekarri.

Udalaren baimena iritziaren arabera izanen da eta, beraz, Udalak balio gabe uzten ahal du, arrazoiak ikusita, komenigarritzat jotzen duenean, baina horrek ez du inolako kalte-ordainik edo gisakorik ekarriko. Halaber, interesdunak idatziz eskatuta balio gabetzen ahal da lizentzia.

III. kapitulua

Merkatu txikietako merkataritza

7. artikulua. Kokapena eta tokia.

Merkataritza ez egonkortzat hartuko da merkatu txiki gisako gai eta produktuen salmenta antolatua, elikagaiak barne, udal organo eskudunak espresuki baimendu eta multzoka ezarritako saltokietan.

Udal organo horrek zehaztuko du jartzeko toki zehatza, udal baimena daukaten postu multzoetan egongo dena.

8. artikulua. Jartzeko eguna eta orduak.

Merkatu txikia, printzipioz, astean egun bakar batez egingo da eta udal organo eskudunak finkatuko du hura jartzeko eguna eta orduak. Interes publikoa badago aldatu ahalko dira kokapena, eguna eta orduak, baimenen titularrei gutxienez bi egun aurretik jakinarazita.

Merkatu txikia hastera doanerako, autoek, kamioiek eta mota guztietako ibilgailuek zamalanak eginda eta merkatu txikiko eremutik kanpo aparkaturik egon beharko dute. Ordu horretatik aurrera debeku da saltzaileak sartzea.

Merkatu txikia bukatu ondoko hurrengo orduan postuak desmuntaturik eta lekua guztiz garbi gelditu behar da.

Ezinbertzez, merkatu txikia ez bada egiten ahal, saltoki baten kontzesioa duen esleipen hartzaileak eskatzen ahalko dio Udalari, idatziz, egun horretako tasaren ordainketa.

9. artikulua. Lanpostuak.

Merkatu txikian udal organo eskudunak finkatutako postu kopurua egonen da.

Behar bezalako ibilgailuekin baimentzen diren salmentetan izan ezik, saltokiak desmuntagarriak izanen dira, eta azaleraren okupazioa baimendua baizik ez da izanen; orokorrean, 6 metro luze eta 2 zabal. Salgaien erakusketa euskarri edo salmahaietan egingen da, lurretik gutxienez ere 80 zentimetrora.

Fabrikazio edo ekoizpen akats ezkutuak dituzten produktuak saldu nahi izanez gero, elikagaiak kanpo, akatsaz ohartarazteko txartelak paratu beharko dira bistan, kontsumitzaileek ongi ikusteko maneran. Saltzaileak jatorrizko marka eta salgaien jatorria egiaztatzen dituen dokumentazio behar adinakoa eduki beharko du.

Erabiltzen diren instalazioak desmuntagarriak izan behar dira eta salgaiak jartzeko gutxienerako baldintzak beteko dituzte segurtasun, aurkezpen eta higienerari dagokienez. Merkatu txikiko eremuan soilik jarri ahalko dira desmuntagarriak diren osagaiak.

Hegalkinen bertikalak ezin izanen ditu inoiz muga lerroak gainditu, eta handik zintzilika dauden gauzek eskura egoteko behar bezalako altuerara egon beharko dute. Horrek salmenta lerroa gainditzen ahalko du, bezeroak nahiz salgaiak babesteko, eguraldi txarra izanez gero, eta ez die inoiz trabarik egingen merkatu txikiaren erabiltzaileei.

10. artikulua. Kutsadura akustikoa.

Espresuki debekaturik dago saltokietan megafonia edo musika jartzea, eta baita soinu bidezko publizitate mezuak jaulkitzea ere. Nolanahi, musika aparatuak saltzen direnetan megafonia instalazioak para daitezke eta musika jaulki, betiere, udal ordenantzek eta indarra duen araudiak musika sortzen den lekuan baimendutako gehieneko soinu maila gainditzen ez bada.

11. artikulua. Eskaerak.

Merkatu txikian salmentan jarduteko behar den udal baimena eskatzeko, 3. artikuluan ezarritako baldintzak betetzeaz gainera, honako datu hauek eman behar dira:

–Izen-deiturak.

–Nortasun agiri nazionalaren zenbakia.

–Herria, karrika, zenbakia eta solairua, baita posta kodea eta telefonoa ere.

–Salgaiak garraiatzen dituen ibilgailuaren matrikula eta titularraren berriketako argazki bat.

- Saltokiaren neurriak, behar bezala egiaztatuak.
- Baimenduta saldu nahi diren gaiak, zehatz-mehatz.
- Titular beraren saltokietan lan egiten duten jendeei buruzko deklarazioa.

Ordenantza honetan ezarritako baldintzak betetzen dituzten eskabideek merkatu txikian saltzen aritzeko udal baimena jasotzeko aukera izanen dute. Ordenantza honetan eskatzen den dokumentazioa aurkezten ez duten eskatzaileei, errekerimendua eginen zaie 10 eguneko epean aurkeztutako dokumentazioa behar bezala aurkez dezaten. Aipatu epea ez betetzeak edo agiri guztiak ez aurkezteak berarekin ekarriko du udal baimenak erdietsi ahal izateko eskabideak ez onartzea eta aurkeztu dokumentazioa arxibatu edo beraien titularrei itzultzea.

#### 12. artikulua. Aldi baterako baimenak.

Organo eskudunak badu eskubidea sasoikako langileei saltokiak emateko edo ez: gehienez ere, hiru hilabeterako urte naturalaren barnean; gutxienez ere, hilabeterako. Saltokia zenbat denboratan okupatzen den, horren arabera egokituko da tarifa.

Udal organo eskudunak merkatu txikiko zenbait saltoki nekazariendako erreserbatzen baditu, nork bere uztak sal ditzan, eskatzaile horiek, gainerako agiriez gain, ekarri beharko dute uztak biltzen diren tokiko udaleko idazkariaren ziurtagiria, eta hartan egiaztatu, batetik, baimenaren eskatzailea uzta-biltzailea dela, eta bertzetik, gai bakoitzari dagokion uzta guti goiti-beheiti zenbaterainokoa den. Aipatu ziurtagiriak lehenetsuna badu ere, hori bera froga dezaketen bertzelako bide baliozkoak ere eskatzen ahalko dira.

Nekazariendako baimenek indarra izanen dute gaiak biltzeko sasoiak dirauen bitartean bakarrik.

#### 13. artikulua. Hutsik.

Hutsik gelditzen den saltokirik izanez gero, aurkeztu diren eskatzaileen artean hautapena eginen du Udalak, irizpide hauetan oinarriturik: produktu berak salgai jartzen dituzten saltokiak ez errepikatzea, kasu sozialen balorazioa, une bakoitzean dagoen eskariaren balorazioa eta Berriobeitiko udal mugapean eta Nafarroako Foru Komunitatean bizitzea.

#### V. kapitulua

Noizbehinkako merkataritza aldikotasunik gabea

#### 14. artikulua. Egokituriko eremuak.

Noizbehinkako merkataritza aldikotasunik gabea soilik egin ahalko da Udalak horretarako egokituriko eremuetan eta baimenduriko denbora epean.

#### IV. kapitulua

Merkataritza denda-ibilgailuetan

#### 15. artikulua. Kokagunea.

Denda-ibilgailuetako merkataritza herriko kale guztietan egin ahalko da, udal organo eskudunak adierazten ahal dituenak salbu.

Jarduera hori soilik egin ahalko da udal organo eskudunak ezarritako egun eta orduetan.

#### 16. artikulua. Ibilgailuak.

Baimendutako denda-ibilgailuek saltzen edo merkaturatzen diren produktuen segurtasun eta osasun arloko araudi indardunean ezarritako baldintza guztiak bete beharko dituzte.

Denda-ibilgailuetako merkataritzan jarduteko baimenak eman aurretik egiaztatu behar da egokitzapena eta eskatzen diren baldintza higieniko-sanitarioak betetzen direla.

#### 17. artikulua. Kutsadura akustikoa.

Anplifikadore eta erreproduzigailuen bidezko propagandak ezin izanen ditu gainditu airearen kalitateari buruzko indarreko araudian ezarritako dezibelioak.

#### VI. kapitulua

Saltzaileen eskubide eta betebeharrak

18. artikulua. Eskubideak.

Eremu publikoan saltzeko baimena duten pertsonen eskubideak honako hauek dira:

- a) Dagozkien saltokiak okupatzea.
- b) Baimendutako gaiak saltzea, onartzen diren egun eta orduetan.

Saltokietan lanean ariko dira baimendutako jendeak edo salmentan laguntzen dutenak. Orobat, baimendutako pertsonaren menpe dauden langileak ari daitezke, hots, besteren kontura lanean ari direnak. Baimendutako pertsona horrek laguntzaileak Gizarte Segurantzaren sistema orokorrean sartuta daudela frogatu beharko du, betiere baimena lortzeko eskabidea egitean horren berri eman bazuen.

19. artikulua. Osasun betebeharrak.

Produktuen higieneari dagokionez:

- a) Elikagaiak, ontziratuak izan edo ez, ez dira lurrean zuzenean jarriko; izan ere, kutsatzea eragotziko duen garaiera batean jarri beharko dira beti.
- b) Ontziratu gabeko elikagai guztiak, frutak eta barazkiak kenduta, jendearengandik behar bezainbat babesturik egonen dira beti, beira-arasetan eta gisakoetan sartuak.
- c) Urdaiazpiko eta hertzekiak garraiatu, bildu eta jendaurrean erakusteko, beharrezko higiene baldintzak bete beharko dira eta inguruak garbi-garbiak eduki. Urdaiazpiko eta hestebeteek zintzilik eta ordenaturik egon behar dute eta behar bezala betetako osasun agiriak izanen dituzte aldean. Ez dute inola ere ibilgailuaren zola ukituko. Salmahaiak material garbigarri eta iragazgaitzez eginak izanen dira eta garbiak egon beharko dute.
- d) Salmentatik kenduko dira behar bezala kontserbatzen ez diren produktu guztiak. Puntu honetan, nagusiki, haragikiak hartzen dira kontuan (odolkiak, saltxitxak eta gisakoak), baita bakailaoa eta hotza behar duten esnekiak ere.
- e) Debeku da elikagaiekin xerrak, xerrendak eta apurrak egitea, non eta saltokiak ez dituen, osasungintzaren eta higieneari dagokionez, gutxieneko baldintzak, hala nola ur hargunea eskuak garbitzeko, lanabesak eta manipulatzeko leku aski, kanpoko kutsaduretatik babestua eta garbitzea erraztuko duen azalera duena.
- f) Tradizioko arrazoiengatik, onartuko da haragikien eta gazta onduen “noizbehinkako mozketak” (puska handietan) eta bakailaoari mozketak bat egitea, gillotina bereziarekin, manipulatu ahal izateko.

Postuaren higieneari dagokionez:

- a) Saltzaile bakoitzak du saltokia eta inguruak garbi eta txukun edukitzeko ardurak, eta lanaldia bukatuta garbi-garbiak utzi beharko ditu. Horretarako ez da salgai, ontzi, saski edo antzekorik utziko haren gibelean edo inguruan.
- b) Zaborrak poltsa ongi itxietan utziko dira horretarako prestatu edukiontzietan.
- c) Hondakin larriak, kartoizko ontziak, saskiak etab. hautsi beharko dira edo tolestu edo txikitu, edukiontzian sartu ahal izateko. Ez dira inola ere edukiontzien inguruan utziko.
- d) Elikagaiak saltzen dituzten saltoki guztiak idorpean egonen dira, haiek babesteko.
- e) Lanaldia hastetik, langilearen garbitasuna eta bere arroparena zaindu beharko da. Saltokian aritzeko baizik ez den arropa erabiliko da.
- f) Elikagaien saltoki baten barrenean dauden guztiek janari erabiltzailearen ziurtagiria izanen dute, ikuskarien eskura.
- g) Merkatu txikiaren esparruan ez da animaliarik sartzen utziko.
- h) Ordenantza honetan adierazitakoa gorabehera, Iruñerriko Mankomunitatearen Hiri Hondakin Kudeaketa arautzen duen ordenantzan ezartzen denari jarraituko zaio.

20. artikulua. Merkataritza arloko betebeharrak.

Eremu publikoan saltzeko baimena duten pertsonak merkataritza arloko eginbehar hauek izanen dituzte:

- a) Dagozkien saltokiak okupatu eta ezarritako egun eta orduetan irekita edukitzea.
- b) Udal baimenak ikusgai jartzea, erosleak dauden tokitik erraz irakurtzeko moduan.
- c) Erakusten dituzten produktu guztiak saltzeko maneran edukitzea. Betiere, baimenduriko produktuak baizik ezin izanen dira ikusgai jarri.
- d) Hala eskatzen zaienean, ordenantza honetan eskatzen diren dokumentu guztiak udal zerbitzuei erakustea.
- e) Salgaien ondoan haien prezioa argi eta zehatz agertzea. Horretarako, salneurri errotuluen neurriak erosleen aldetik ikusteko modukoak izanen dira.
- f) Udal organo eskudunak pisu eta balantzarako ezartzen duen kontrastea onartzea.
- g) Saltokira agertzerik ez badute, behar bezain aitzinetik jakinarazi beharko du, eta horretarako arrazoiak azaldu.

21. artikulua. Betebehar fiskalak.

Eremu publikoan salmentan aritzeko baimena eskuratzen dutenek zerga arloko eginbehar hauek izanen dituzte:

- a) Salmentarako beharrezko den kasuetan, eskaturiko fidantza uztea.
- b) Udalak osoko bilkuran onetsiriko tasa eta eskubideak ordaintzea.

## VII. kapitulua

Arau-hausteak eta zehapenak

22. artikulua. Osasun arloko ikuskapenak.

Eremu publikoko saltokietako gai eta produktuen osasun kontrola eta ikuskapenak osasun arloko agintari eskudunei dagozkie.

Berribehitiko Udalari dagozkio eremu publikoko salmentaren kontrolak eta zaintza. Haren lana izanen da ordenantza hau zuzen betetzen dela zaintzea eta okupatzen ez diren saltokien kontrola.

23. artikulua. Huts egiteak.

Baimenen titularrak izanen dira ordenantza honetako xedapenen aurkako arau-hausteen erantzuleak, beraiek egindakoak izan edo saltzen laguntzen dieten familiakoek eta soldatukoek egindakoak izan.

Merkataritza ez egonkorra arautzen duen uztailaren 3ko 13/1989 Foru Legean ezarritakoaren arabera, arau-hausteak mota hauetakoak izan daitezke:

- a) Arau-hauste arinak:
  - i) Arau-hauste arintzat hartuko da baimenean ezarritako baldintzetako edozein ez betetzea, baita udal ordenantza honek eta 13/1989 Foru Legeak ezarritako betekizun eta eginbeharrak ez betetzea ere, betiere azken horiek larri edo oso larritzat hartzen ez badira.
  - ii) Merkatu txikia hasten den ordu berean saltzen ez hastea.
  - iii) Saltokia baimenik gabe hiru egun edo gutxiagotan itxia edukitzea, aurretik idazki batean justifikatu gabe.
  - iv) Udal baimena jendaurrean ez izatea.
  - v) Elikagaiak saltzen direnean, janari erabiltzaileen karnetik ez izatea.
  - vi) Ordenantza honi jarraikiz, saltokietan aritzeko baimena duten pertsonak egon beharrean, bertze batzuk egotea, aginduzko baimenik ez izateagatik arau-hauste oso larritzat hartzen ez bada.
  - vii) Ordenantza honetan eskatu osasun eta zerga arloko betekizunak ez betetzea.

b) Arau-hauste larriak:

i) Arau-hauste arina berriro egitea.

ii) Merkataritzaren xede diren gaiak arautzen dituen araudiak eskatutako baldintzak ez betetzea.

iii) Udaleko agintari, funtzionario edo agenteei beren eginkizunak betetzen ari direnean argibideak ukatu edo ez ematea, baita argibide okerrak edo gezurrezko dokumentazioa ematea ere.

iv) Parada esleitu den saltokian ez paratzea, Administrazioak espresuki baimendu gabe.

c) Arau-hauste oso larriak:

i) Arau-hauste larriak berriro egitea.

ii) Saltzeko baimenik ez izatea.

iii) Udaleko agintari, funtzionario eta agenteei beren eginkizunak betetzen ari direnean aurre egitea, hertsatzea edo mehatxatzea.

iv) Saltokia baimenik gabe sei egun edo gutxiagotan itxia edukitzea, aurretik idazki batean justifikatu gabe.

v) Kontzesio hartzaileak saltokiaren kontzesioa saltzea.

24. artikulua. Zehapenak.

Arau-hauste arinak 150,00 euro arteko isunarekin zehatzen ahalko dira.

Arau-hauste larriak 150,01 eurotik 600,00 eurorainoko isunarekin zehatzen ahalko dira.

Arau-hauste oso larriak 600,01etik 3.000,00 eurorainoko isunarekin zehatzen ahalko dira eta, kasuan-kasuan, saltzeko baimena aldi baterako kendu edo baliorik gabe utzita.

Aurreneurri gisa, salgaiak bahitzen ahalko dira, baldin eta, egindako jarraipena eta gero, merkatuan saltzeko eskatzen diren gutxieneko baldintzak ez dituztela betetzen uste bada; agintari eskudunaren ustez osasunarentzat arriskurik sortzen badute, edo saltzeko behar den baimenik ez bada, konfiskatu eginen dira.

25. artikulua. Prozedura.

Prozedura aldetik, indarra duten administrazio xedapenetan ezarritakoari lotuko zaizkio zehapen espedienteak.

a) Espediente zehatzaileen prozedura indarra duten administrazio xedapenetan ezarritakoari lotuko zaio.

b) Arau-hauste arin, larri eta oso larriengatik zehapenak ezartzeko, espedientea beharko da aldeztu aurretik; hura tramitatuko da bat etorritik Herri Administrazioen Araubide Juridikoari eta Administrazio Prozedura Erkideari buruz indarra duen azaroaren 26ko 30/1992 Legean ezarritakoarekin eta Zehapen ahalmenaren prozedurarako Erregelamendua onesten duen abuztuaren 4ko 1398/1993 Errege Dekretuan ezarritakoarekin.

c) Zehapenak ezartzeko ahalmena alkatearena da. Udaletik kanpoko agintariak zehatu behar dituzten arau-hausteak direnean, alkateak emanen die haien berri.

d) Kasuak arras larriak direnean, organo eskudunak jarduera etetea erabaki dezake, badaezpadako neurri gisa, arau-hauste larri edo oso larriak egin direla-eta irekitako zehapen espedientea tramitatzeko den bitartean.

TARIFAK

Berriobeitin, metro lineala 73,56 euro kobratuko da denboraldi osoan.

Metro lineala 2 euro kobratuko da eguneko.

Hau da, 6 metro lineal eta bi metro zabal daukaten postuek, denboraldi osokoak izan gabe eta egun baterako direnean, 12 euro ordaindu behar dute.

Denboraldi osoko postu arrunt batek (6 x 2) 441,36 euro ordaindu beharko ditu.

Iragarkiaren kodea: L1609874

